



GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Espezifikoa

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

**EAE-KO GOBERNANTZAREN ADIERAZLE-BATERIA. –BIG-
KONTZEPTU, ITURRI ETA DIMENTSION NAGUSIAK
ERAGIKETA ESTADISTIKO OFIZIALA. KODEA: 153020**

AURKIBIDEA

1. Nondik datorren eragiketa hau	2
2. BIG-EAeko Gobernantzaren Adierazle Bateria estatistika-eragiketaren helburuak.....	2
3. Gobernantza-kontzeptuak.....	3
4. Metodologia diseinatzeko iturri nagusiak.....	4
5. Dimentsioak eta adierazleen hautapena	4
6. Argibide gehiago nahi izanez gero	7

1. Nondik datorren eragiketa hau.

Saileko 2019-2022 Estatistika Plana prestatzen ari ginela, bileraz bilera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu saileko zuzendaritza guztiekin batu ginen. Bilera haietan, sailak proposatu zuen azterlan enpiriko bat egitea, jakiteko gobernantza publikoa zertan den Euskal Autonomia Erkidegoan.

Egin genuen eragiketa horren aurreproiektua; aurkeztu genuen saileko zuzendaritzetan; eta erabaki zen, aho batez, estatistika-eragiketa hark ofiziala izan behar zuela.

Hartara, 2019-2022 Euskal Estatistika Planaren Legean jaso zen -8/2019 LEGEA, ekainaren 27koa-. **153020** zuen eragiketa-kodea; eta, behin betiko izena, berriz:

Gobernantzaren Adierazle Bateria / Bateria de Indicadores de Gobernanza (BIG)

2. BIG-EAeko Gobernantzaren Adierazle Bateria- estatistika-eragiketaren helburuak.

- **Helburu orokorrak:**

Asmoa da ikustea zer lotura dagoen gobernu-ekintzaren eta gobernantza delakoaren artean, eta, horrela, lan-tresna bat taxutzea, hainbat adierazletan oinarritua. Adierazle horiek ekonomikoak izango dira, sozialak, politiko-arautzaileak eta kudeaketa publikoaren arlokoak.

- **Helburu espezifikoak:**

1.- Dimentsio hauek ikertzea:

- a) Segurtasuna eta Zuzenbidea.
- b) Gizonen eta emakumeen parte-hartzea eta eskubideak.
- c) Garapen ekonomiko jasagarria.
- d) Giza garapena.
- e) Ustelkeria.
- f) Lankidetzaren bidezko gobernantza.

2.- Baloratzea zer-nolako ezberdintasunak dauden EAeko lurralde historiko batetik bestera, datu horiek ere badakartzaten adierazleetan.

3.- Nazioarteko erakunde akademiko nagusientzat gobernantza zer den ikusita, eta konparaketa bat egitea gure bateriaren eta haiek darabiltzaten beste estatistika-adierazle-bateria batzuen artean.

4.- Gobernantzaren alderdi objektiboak eta subjektiboak orekatzeko moduan diseinatzea dimentsioak eta sailkatzea adierazleak.

5.- Begiratzea zer adierazle berezi behar diren, EAek kulturaz eta hizkuntzaz dituen berezitasunak aintzat hartzeko.

3. Gobernantza-kontzeptuak.

RAE hiztegiaren arabera (Real Academia Española), gobernantzaren kontzeptuak bi definizio ditu:

1. f. Gobernatzeko artea edo modua, helburutzat hartzen duena ekonomiaren, gizartearen eta erakundeen garapena lortzea luzerako, oreka jatorra sustatuz Estatuaren, gizarte zibilaren eta ekonomiako merkatuaren artean.

2. f. Zaharkitua.- Gobernatzea, edo nork bere burua gobernatzea; eta ondorioak.

Ordea, non darabilgun, ñabardura ezberdinak izango ditu gobernantzaren kontzeptuak, eta, gainera, erruz erabiltzen denez ekonomian, enpresan, informazioaren gizartean, sexu-berdintasunaren arloan eta beste hainbat esparrutan, ikusten dugu gobernantzaren definizioak ere aldatu egiten direla erakunde batetik bestera.

Sektore publikoaren gobernantza.

Lege-, arau-, erabaki- eta administrazio-praktika batzuen erregimena da, balio duena ondasun eta zerbitzu publikoak mugatu, agindu edo eskaintzeko. Erakundeek, hortaz, berezkoa dute politikak sortzea eta zera publikoa kudeatzea.

Gobernantza orokorra.

Denon arteko ahalegina, identifikatzeko -baita ulertzeko edota konpontzen saiatzeko ere-, mundu guztian, zer arazok gainditzen duen estatuaren ahalmena.

Honela defini daiteke: erakunde formalen eta informalen, mekanismoen, harremanen eta prozesuen multzoa, aurkituko ditugunak estatuetan, estatuaren artean, merkatuetan, herritarren esku eta gobernu barruko nahiz gobernu arteko antolakundeetan eta erabiltzen direnak interes erkideak plano globalean mamitzeko, eskubide-betebeharrak eransteko eta auziak konpontzeko.

Gobernu ona.

Munduko Bankuaren definizioaren arabera, hari-mutur hauek ditu gobernu onak: gai publikoen kudeaketa ona (efizientzia, eraginkortasuna eta ekonomia), kontuak ematea, trukea, informazioaren zirkulazio askea (gardentasuna) eta garapenerako esparru juridikoa (justizia, giza eskubideen eta askatasunen errespetua).

Gobernu-kalitatea:

Goteborgeko Unibertsitateko Politika Zientzien Departamentuak zer dio gobernu-kalitateaz? Hango Gobernu Kalitateko Institutuko ikertzaileentzat, 'agintea daukaten erakundeen inpartzialtasuna esan nahi du Gobernu Kalitateak' (QoG). Baina inpartzialtasun hori josten duten giltzarriak administrazio publikoaren esparrutik sortzen dira, esparru publikoan zer nahi dugun hautatzeko aukeratik, kulturantzatasunetik eta feminismitik.

Beharrezkoa da inpartzialtasunaren teoria testuinguru zabalago batean kokatzea, hartara haren irismena eta esanahia gobernu-kalitatearen hiru kontzeptu hauekiko kontrastean jartzeko: demokrazia, zuzenbide-estatua eta eraginkortasuna, hirurak ere bata bestearekin lehian beti.

Ikerketa-ildo horrek dimentsio hauek ditu ardatz:

- 1) Ustelkeria kontrolatzea
- 2) Zuzenbide-estatua
- 3) Administrazioaren eraginkortasuna (burokratiko)
- 4) Gobernuaren ahotsa eta kontuak ematea/edo hauteskunde-erakunde eta demokratiko sendoak.

4. Metodologia diseinatzeko iturri nagusiak.

Diseinua egiteko, askotariko informazio-iturriak erabili ditugu, orobat askotarikoak direlako BIG estatistika-eragiketaren bidez ukitu nahi diren esparruak. Jarraian aipatu ditugun azterlanak nazioartekoak dira, eta, horregatik, erabili dituzten adierazleetako batzuk ezin izan ditugu gure esparruan aplikatu, edo aldatu egin behar izan ditugu (kalkuluak egin ahal izateko), esate baterako, eskumen batzuk Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituelako, beste batzuk foru-aldundienak direlako, poblazioak ezberdinak direlako tamainaz, geografia ere bat, eta abar.

Gainera -eta hau azpimarratu beharra dago-, lehen txosten honetan hasiera batean zehaztu diren dimentsioak eta azpidimentsioak ez dira ez finkoak ez mugiezinak (ezta dimentsioetako adierazleak ere), eragiketaren diseinuaren mende daude, eta diseinu hori dinamikoa da, geure buruak arian-arian egokituz helburuak hobeto bete ditzagun.

Oinarriei dagokionean hauek dira BIG estatistika-eragiketaren iturri nagusiak:

- **Munduko Bankua (WGI):** <http://info.worldbank.org/governance/wgi/>
- **Mo Ibrahim fundazioa:** <https://mo.ibrahim.foundation/iiag>
- **Goteborgeko Unibertsitateko QoG institutua:** <https://www.gu.se/en/quality-government/qog-data/data-downloads>
- **Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea (ELGA):** <https://stats.oecd.org/>

5. Dimentsioak eta adierazleen hautapena.

Aztertu beharreko dimentsioak ondo aukeratzen baldin baditugu, errazagoa izango da beste azterlan batzuekiko konparaketak egitea eta samurragoa izango da azterlan hau bai etorkizunean bai antzeko interes estatistikoak dituzten beste autonomia-erkidego batzuetan ere erabili ahal izatea.

1. Segurtasuna eta zuzenbidea

- **Segurtasuna:** Mo Ibrahim fundazioak eman dion definizioaren arabera, herrialde batean segurtasuna egongo da eta eskubideak errespetaturik egongo dira, baldin eta gatazkarik ez badago, herritarren segurtasuna babesturik badago eta zuzenbide-estatua defendatzen badute.
- **Zuzenbidea:** RAEren arabera:

- Printzipio eta arauen multzoa, justiziaren eta ordenaren ideia bat adierazten dutenak, giza harremanak arautzen dituztenak gizarte orotan eta hertsapenez inposa daitezkeenak bete daitezzen.

2. Parte-hartzea eta gizonen eta emakumeen eskubideak

Parte hartzea -bizitza politikoan eta kulturalean diogu- oinarrizko giza eskubidea da, halaxe aitortua giza eskubideei buruzko nazioarteko itun bat baino gehiagotan, esate baterako -nonbaitetik hastearren- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean; han datoz jasota gobernuan eta hauteskunde libreetan parte hartzeko eskubidea, erkidegoaren bizitza kulturalean parte hartzeko eskubidea, biltzeko eta bakean elkartzeko askatasuna eta sindikatueta afiliatzeko eskubidea.

Parte-hartzea giza eskubideen oinarrizko printzipioa ere bada, eta pertsona ororen herritartasun demokratikorako baldintza ere bai.

Giza eskubideen espektrora osoa aseta ez badaukagu, zaila da ezertan parte-hartzea, are eta ezinezkoa. Baldintza sanitario eskasak, hezkuntza erdipurdikoa, adierazpen-askatasuna mugaturik, txirotasuna eta abar.

Gure eskubideak ukitzen dituzten prozesu-egituretan parte hartzeko gaitasunean, urritasun horiek guztiek dute zeresana. Eta, era berean, parte hartzen ez badugu, nekez izango dugu giza-eskubide horietara iristeko bidea.

Parte-hartuz bakarrik da posible gizarte giza eskubideetan oinarrituta eraikitzea, gizarte-kohesioa sustatzea, gure ahotsa entzunaraztea erabakiak hartzerakoan eragina izateko eta aldaketa lortzeko, eta, azkenik, gure bizitzaren subjektu izatea, eta ez objektu.

3. Garapen ekonomiko jasangarria.

Merkataritza, gizarte eta naturan inbertitzea, halako moldean non geroz eta oparotasun handiagoa sortuko baita guztiontzat, gaur egun eta etorkizunean. Jasangarritasuna ez da neurtzeko kontzeptu erraza, gauza asko ukiezinak dira, baina beste batzuk kuantifikatu daitezke.

GmbH Nazioarteko Lankidetzarako Alemaniako Sozietatearen arabera, nahi baldin badugu hazkundea inklusiboa izatea, ingurumenaren aldetik jasangarria eta enplegua sortzeko aproposa, azpitik baldintza ekonomiko batzuk behar dira, aldeztatik ezinbestekoak direnak diru-sarrerak sortzeko eta pobrezia betiko murrizteko.

Nazioartera begira jartzen bagara, han darabilten eztabaidaren muinean geroz eta maizago ageri da zein ote den modurik onena hazkunde jasangarria pizteko gizartean, ingurumenean eta ekonomian.

4. Giza garapena.

Har dezagun Giza Garapenaren Indizea (GGI). Garapenerako Nazio Batuen Programan erabiltzen da, eta sortu zen garbi uzteko pertsona eta pertsonaren gaitasunak herrialde baten garapena ebaluatzeko funtsezko irizpidea izan behar direla, ez hazkunde ekonomikoa bakarrik.

Nazio-politiketan egiten diren aukeraketak ezbaian jartzeko ere erabil daiteke GGI; konparazio baterako, balia daiteke aztertzeko ea zergatik bi herrialdetan giza-garapena ez dagoen maila berean nahiz eta Errenta Nazional Gordina parekoa izan. Arrakala horiek begi aurrean hartuta, baliteke errazagoa izatea eztabaida xaxatzea gobernu-politiken lehentasunen gainean.

Garapenerako Nazio Batuen Programaren barruan, Giza Garapenaren Indizeak (GGI) giza garapenaren funtsezko hiru alderdi biltzen ditu: bizitza luze eta osasungarria, ondo prestatuta egotea eta bizi-maila nahikoa izatea.

Dimentsioak eta azpidimentsioak hautatzeko eta definitzeko prozesu horretan, egokitzat jo dugu azpidimentsio batzuk gehitzea, hala nola: «Hizkuntza-eskubideak», «Kultura-garapena» eta «Jarduera fisikoa eta kirola». Izan ere, gobernu-politikak EAEn aplikatu behar dira, eta gure ezaugarri berezi batzuk ere txertatu nahi izan ditugu, gure eragiketari balio bereizgarria ematearren.

5. Ustelkeria.

Era bat baino gehiagotara defini daiteke ustelkeria. Funtzionario batek edo zuzendaritza publiko batek zer edo zer erabakitzeko prozesuan eragina izaten saiatzea, edo influentzia-trafikoa. Funtzionarioa, bere lana egiten ari delarik, zintzo ez ibiltzea edo konfiantza urratzea. Informazio konfidentziala baliatzea eta interes-gatazkak. Iruzurra baliatuz influentzia-trafikoa egitea, hala nola eroskeria eta xantaia erabiliz, hauteskunde-iruzurra barne.

Jokamolde horrek alde batera uzten ditu etika, moralak, tradizioak, zuzenbidea eta giza-legea.

6. Lankidetzaren bidezko gobernantza.

Estatistika-eragiketan definitu denez, "gobernantza lankidetzan" egingo da baldin eta bi erakunde edo gehiagok arlo berean jarduten badute eta erabakiak koordinatu egiten badituzte helburu erkide bat lortzeko, bakoitzak bere eskumen-eremuan bere erabakiak hartzeko ahalmena galdu gabe.

Gainera, aurretiaz, beharrezkoa da erakundeek lankidetzarako borondatea izatea, komunikazio-bideak egotea, eta emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea. Definizio hori "maila anitzeko gobernantzaren" definizioaren antzekoa da (beste azterlan batzuetan horixe aurkituko dugu).

Illo horretan, kontuan hartuz zer helburu deskribatu diren BIG estatistika-eragiketan, oinarriak jartzeko orduan, Eusko Jaurlaritzaren 2020-2024 Gobernu Programan deskribatutako ekimenak baliatu ditugu (Eusko Jaurlaritzaren XII. legegintzaldia); bat datoz, gainera, lankidetzaren bidezko gobernantzaren definizioarekin.

Abiapuntu hori hartuta, adierazle zenbait aukeratu dugu, lagundu diguten erakundeen administrazio-mailaren arabera.

6.1 Erkidego barruan: Erakunde hauen arteko lankidetzaren saioak: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak.

6.2 Eskualdeen artean: Eusko Jaurlaritzaren eta autonomia-erkidegoen edo Akitaniaren arteko lankidetzsa-saioak.

6.3 Gobernu zentrala-Eusko Jaurlaritz: Gobernu zentralaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzsa-saioak.

6.4 Eusko Jaurlaritz-Beste erakunde batzuk: Eusko Jaurlaritzak aurreko saillapenetan ageri ez diren beste erakunde batzuekin egindako lankidetzsa saioak, hala nola Europar Batasunarekin edo gizarte-eragileekin.

6. Argibide gehiago nahi izanez gero,

Eusko Jaurlaritz
Donostia -San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Helbide elektronikoa: apjus-estad@euskadi.eus
Telefonoa: 945-017726